

# KAMASUTRA

*Uxue Alberdi eta Erika Lagoma*

2008-03-08, Zarauzko Putzuzulo gaztetxean

“Txakoliña kulerotan” jaialdirako sortu eta bertan kantatuak

1-Marisolek esan zuen  
bizitza dela tonbola  
ta bakoitzari paper bat  
egokitu ohi zaiola.

Testuinguruak jartzen  
digu lehenengo ohola  
ta geronek eraikitzen  
dugu ondoren kaiola.

Kartzelero historia,  
moralak eta eskola:

neskei soka ta goma  
ta mutilei futbola...

Baloreak berreraikiz  
karanbola, karanbola...

Kartzelarik kartzelena  
Ez al da autokontrola?

3-Mikrofonoa hurbil dut,  
beraz, hasi bedi festa!  
Oholtzan estrogeno gutti,  
testosterona gainezka...

Berrero ere erraiek  
egin didate protesta,  
bertsolari zorrotzari  
hasi zaizkio galdezka...

Bertsolari sentiberak  
azalerazi du kezka:

ni burutsu, ni berritsu,  
ni, emakume orkesta...

Begiak jaitsi dituzu  
zergatik zabiltz iheska?  
Esna zaitetz, zu, zu zara,  
ez zara bakarrik neska.

5-Sagardotegietatik  
gaur eguneko mundura  
bertsolariak izan du  
bertsolarian itxura:

bi eskuak patrikara,  
ezpainak, berriz, purura,  
ahots lodia airera,  
norgehiagoka burura...

Diote emakumea  
ederki integratu da!!

Baina barruan zerbaitek  
egiten digu azkura,  
ezin baitugu aurkitu  
gure gustuko postura  
behin bihurtu ginenetik  
gizonen karikaturla!

2-Gaur bertso-saio bat daukat  
iritxi da larunbata;  
ohe gainean gona bat  
eta 3 pare praka.

Ez dut itsusi joan nahi  
baina nola joan guapa?,  
adornorik jantzi gabe  
demostratu behar da tal!

Pentsa ez dezaten naizela  
2 titi eta 2 hanka...

galtza pare bat jantzi dut  
gonak albora lagata.

Baina hala eta guztiz  
ez nago gustura: kaka!

Kasualitatea al da  
dugun segurtasun falta!

4-Gogoratu eskolako  
jolasorduko denbora.

Espazio banaketa  
ez al da nahikoa frogat?

Mutilak kanpo osoan  
Baloiarekin, gustora,  
ta neskak goma batekin  
patioaren txokora...

Ta estrapolatu hori  
gizarte anonimora:

Nork dauka espazioa?  
nork du ahotsa boz gora?

Uztazu biktimismoa  
ta zuzendu publikora!

2 potrokin kantatzea  
pixkat zaila izango da!

6-Baina dena ez da beltza!

Baina dena ez da rosa!

Neska aurpegia dugu  
eta emakume boza;

hilerokoa,  
mikroa ta altaboza,  
berdin gara lotsagabe,  
indartsu edo mimosa...

Gaur takoiek zapaldu  
dut sukaldeko baldosa,  
dantza egin zazu dantza  
malageña salerosa!

Kendu buruko katea  
eta eskuko esposa,  
ea igartzen dizuten  
askatu denaren poza.

7-Zerk egiten gaitu berdin?

Ta zerk, osterak, desberdin?

Begiratu ohi gaituzte  
begi berdin-berdinekin.

Saio bat=neska bat  
ekuazioarekin

bi izen dauzkagu baina  
maiz nahikoa da batekin...

Oholtzan sei aulki daude  
zazpi, manikiarekin

Zu bazaude, ni ez nago  
konturatu zara... enfin!

Ezagutu nahi zintuzket  
kanta ezazu nirekin:

bidea oinetan dugu  
egin daigun elkarrekin!